

KOSTUEN EGITURA

Negozio-eredu batzuek prezio baxuak dituztelako funtziona dezakete, gure kasuan berriz, duten kalitate-maila handiagatik. Gure enpresan helburua ez da kostuak murriztea, hau da, balioan oinarritutako negozio-eredua erabiltzea da. Gure produktua berria denez, aurretik sortuta ez dagoenez, balio ona izatea da gure intentzioa, lehiakideak ez izateko eta bezeroengana iritsi nahi dugu produktua kalitatezkoa edota eksklusiboa izanda.

Gure dirua lokalean, dronak sortzeko makinetan eta dronak egin ahal izateko materialean inbertituko dugu. Ez dugu inor kontratatuko dronak egiteko, guk egingo ditugu, beraz ez dugu hortan inbertituko. Hainbat kostu mota daude baina guk erabiliko ditugunak **finkoak eta aldagarriak** dira. Alde batetik, gure kostu finkoak, erabili behar dugun lokala eta erosi behar ditugun makinak izango litzateke. Lokala, dronak egiteko edo diseinatzeko erabiliko dugu, bertan egingo ditugu dronak eta makinen bidez sortuko ditugu. Kontutan hartu behar dugu ere lokaleko elektrizitatea. Izan ere, lokala garbia mantentzeko, garbitzaileak kontratauko genituzke guk lana aurrezteko. Bestetik, gure kostu aldagarriak, dron horiek eraikitzeke behar dugun materiala da. Adibidez, kableak eta motorra drona martxan jartzeko, hainbat tresna drona eraikitzeke, ekipo informatikoa diseinua egiteko (ordenagailua adibidez).

| KOSTU FINKOAK | € | KOSTU ALDAGARRIAK | € |
|-------------------------|----------|--|----------|
| Lokala (hilean) | 2000€ | Materiala (bateria, motorra, kableak, burnia...) | 5.000€ |
| Elektrizitatea (hilean) | 700€ | Ekipo informatikoa (ordenagailuak) | 20.000€ |
| Makineria | 100.000€ | Tresnak (herramientak) | 7.000€ |
| Mugikorra (hilean) | 30€ | | |
| Garbitzailea (hilean) | 900€ | | |